

URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN
MANKOMUNITATEKO ETA HURA
OSATZEN DUTEN ZAZPI UDALETAKO
BERDINTASUNERAKO III. PLANA

2019-2023



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDE
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

-k Diruz lagunduta

‘Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren xedea botere publikoak gidatzea da, zertarako eta bizitzaren arlo guztietan emakumeen eta emetasunaren mendekotasuna mantentzen eta justifikatzen duten balioak aldatzeko; balio horiek gizonak ere mugatzen dituzte, nahiz eta oraindik botere-egoeran egon, patriarkatuak haien bizitzak ere baldintzatzen baititu, unibertsala da eta.

Balio aldaketa hori ezinbestekoa da giza garapen jasangarrirako, eta berekin dakar hainbat balio berri sortzea eta finkatzea, zeinak ez diren androzentrismoaz, sexismoaz eta matxismoaz zeharkatuta egongo; aitzitik, emakumeen eta gizonen berdintasuna, emakumeen giza eskubideak eta herritarren sustapena garatzea eta txertatzea ahalbidetzen duten printzipio filosofiko, etiko eta politikoek zeharkatuko dituzte. Berdintasuneko politika publikoen bidez aurrerapen juridiko ugari lortu dira, horren adibide Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, EAEn bizitzako arlo guztietan emakumeen eta gizonen aukera eta tratu-berdintasuna sustatzeko eta bermatzeko neurriak arautzen dituelako’.

(Emakunde, 2018 EAE-ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana).

1.- HITZAURREA

2006an Berdintasun Zerbitzua bateratuta sortu zuenean Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak (UKZM) hartutako konpromisoaren emaitza da hemen aurkezten den **Uribe Kostako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2019-2023)**. Konpromiso hori sendotu egin da Uribe Kostako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana garatzeko prozesu parte-hartzaile bat sustatzearekin batera.

2017ra arte indarrean egon den Berdintasunerako II. Plan erkidetua ebaluatu egin zen 2018an zehar, dokumentu horretan zehaztutako helburuak zein neurritan bete diren jakiteko asmoz eta denbora tarte horretan izandako indarguneak, ahulguneak, aukerak eta zailtasunak detektatzeko, hain zuzen ere.

Berdintasunerako III. Planak aurrerapen handia ekarriko du gero eta berdinzaleago izango den gizarte bat lortzeko helburua duten gizarte-politikak garatzeko unean, lan-esparrua edozein dela ere. Alabaina, UKZM-ko Berdintasunerako III. Plan errealista eta egingarri bat diseinatu ahal izateko, II. Plana ebaluatzeaz gain, Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta desberdinkeraren egoeraren diagnostikoa egitea funtsezkoa eta nahitaezkoa izan da, prozesu horrek udalerrri bakoitzaren premiak eta erritmoak markatuko baititu.

Gizarte eta lan-eremu berdinzaleago bat lortzeko asmoz erakundeek planteaturiko helburuak pixkanaka betetzeko aukera izan dezaten, **Uribe Kostako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2019-2023)** lan-tresna gisa aurkezten da.

4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen arabera garatzen da honako plan hau. Legearen 7. artikulua ezartzen du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan, lege hori modu eraginkorrean aplikatzea xedea duten hainbat funtzio tokiko administrazioari dagokiola, banaka edota partaide diren mankomunitateen zein kuadrillen bidez.

Oro har, prozesua parte-hartzailea izan da eta **Emakundeko Emakumeen eta Berdintasunerako VII. Planak** ezartzen dituen esku-hartze ardatzak kontuan hartu dira. Honako hauek dira:

- **Gobernu Ona.** *Nazioartean aho batez onartzen da ezin dela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egin baldin eta legeriak eta politika publikoek ez badituzte berekin ekartzen konpromisoak betetzea bermatuko duten gobernu-zuzentarauak, aurrekontuko diru-izendapenak, erakundearteko akordioak, kudeaketa gardeneko prozedurak eta kontrol-sistemak.*
- **I. ardatza. Emakumeen Ahalduntzea.** *2015ean Nazio Batuetako estatu kideek onartutako Garapen Jasangarrirako Helburuen bidez eta 2030erako Mundu Agenda berriaren bidez, lortu nahi da XXI. mendearen bilakaera aldatzea, bizitzaren eremu guztietan dauden desberdintasunak, pobrezia eta emakumeen aurkako indarkeria ezabatuz. Hala ere, NBE Emakumeak erakundeak esaten duenez, alderdi horietako bat ere ezin da hobetu emakumeak ahaldundu gabe, hau da, ahalduntzea betekizun eta berme bat da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde munduan egin behar den eraldaketa sozialerako.*

- **II. ardatza. Ekonomiak eta gizarte antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko.** *Nazio Batuen Erakundeak adierazten duenez, ekonomiak eraldatzeko eta eskubide ekonomiko eta sozialak gauzatzeko, beharrezkoa da hiru lehentasuneko eremutan ekitea: emakumeentzako lan duinean, genero-ikuspegia duten gizarte-politiketan eta eskubideetan oinarritutako politika makroekonomikoetan.*
- **III. ardatza. Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.** *Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa larria da. Gizonek emakumeen aurka emakume izateagatik baliatzen duten indarkeria da, eta hala baliatzen da genero-diskriminazioen ondorioz eta gizarte-eredu ez-pareko eta hierarkiko honetan gizonek emakumeekiko duten boterearen ondorioz, emakumeak mendekotasun-egoeran baitaude haiekiko.*

Emakunderen Berdintasunerako VII. Planaz eta bere ardatzez gain, **Bizkaiko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Plana** kontuan hartu da. Horrek ezartzen dituen esku-hartze arloak Emakunde proposatutakoekin bat datoz, eta era berean bere helburu nagusia da *mikromatxismoak, maskulinitate berriak eta baterako hezkuntza; izan ere, asmoa da gai horiek landuz emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko zein emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzeko egiten ari den ahalegina indartzea.*

Esku-hartze eremuak ondokoak dira:

- **Gobernantza.**
 - Konpromiso politikoa
 - Gobernantza eta genero ikuspegia txertatzea
 - Demokrazia parte-hartzailea
- **Balioak aldatzea eta emakumeak ahalduntzea. Hiru ildo estrategiko:**
 - Balio-aldaketa
 - Ahalduntze kolektiborako laguntza
 - Ahalduntze sozial eta politikorako laguntza
- **Gizarte antolakuntza erantzunkidea. Bi ildo estrategiko:**
 - Erantzunkidetasuna eta denboraren erabilera berriak
 - Bateratze erantzunkidea
- **Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea. Bi ildo estrategiko:**
 - Sentsibilizazioa eta prebentzioa
 - Detekzioa eta arreta

2.- ESPARRU KONTZEPTUALA¹

Azken urteotan emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko terminologia ekarpen eta aldaketa asko izan ditu. Beharrezkotzat hartzen da une honetan egokiak diren kontzeptuak eta terminoak garatzea.

Feminismoak erakutsi digu errealitate bat izendatzeak errealitate hori ikusgarri egitea ahalbidetzen digula. Indarkeria, desberdintasunen sistema osatzen duen alderdi bezala, ikusezin mantentzen da gaur egun ere eta, aldi berean, indarkeria gauzatzeko orduan eragina duten alderdi pertsonalei gehiegizko garrantzia ematen zaie; hau da, indarkeriazko egintzen kausak, bereziki, pertsonalak direla sinestarazi digute, eta ez sozialak. Ikusezin egite horrek eragin du, halaber, emakumeei berariaz zuzendutako indarkeriari buruzko hizkera urria eta pobretua izatea, eztabaida txikia eta garrantzirik gabea delakoan.

INDARKERIA MATXISTA

Hau izango da **kontzeptu nagusia**, tradizioz esleitutako genero-eskemak –intersexualak, transgeneroak, transexualak, homosexualak, lesbikoak, eta ohiko sexu/genero eskema birsortzeari uko egiten dioten emakumeak eta gizonak– apurtzen dituzten gorputzei espazio fisiko eta sinboliko guztietan egiten zaizkien indarkeria mota guztiak barnean hartzen dituen, gorputz intsumiso horiek pairatzen dituzten zuzeneko indarkeriaren adierazpen askotarikoak haurtzaroan agertzen direla eta, hainbat molde hartuta, bitzta osoan mantentzen direla ulertuta.

INDARKERIA SEXISTA

Izen hori erabiliko dugu tradiziozko sexu/genero eskeman **emakume gorputz sinbolizatu** guztiek espazio guztietan pairatzen dituzten indarkeria molde guztiak adierazteko.

Indarkeria sexistaren barruan, indarkeria moldeak edota indarkeria egiten den leku sinbolikoak adierazten dituzten kontzeptuak, kontzeptu juridikoekin lotura dutenak, erabiliko ditugu:

- **Genero-indarkeria.** Genero-indarkeria terminoa erabiliko da indarkeria sexista, edozein moldetan, bikotekideak edo bikotekide ohiak egiten duenean. Definizio horrek bat egiten du 2004ko abenduaren 29an BOE-n argitaratu zen Genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko Lege Organikoan jasota dagoenarekin: “indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere, gizonetakoek beren ezkontide diren edo izan diren emakumeei, edo haiekin antzeko maitasun-harremanak dituzten edo izan dituzten emakumeei ezartzen dizkietenak, nahiz eta elkarbizitarik ez izan”.

¹ Documento sobre la violencia machista, la terminología utilizada por la Diputación Foral de Gipuzkoa y el análisis que la sustenta.

Amari tratu txarra egiten dion aitarekin edo aita biologikoa izan gabe gizonezko bikotekidearekin hazi diren haur eta nerabeek pairatzen duten indarkeriak zer garrantzi duen aintzakotzat hartzeko, genero-indarkeriaren biktimak kontzeptua zabaldu egingo da, errealitate hori ere barnean har dezan. Kontzeptu horren barruan daude indarkeriari aurre egiten dion emakumearen ardurapean dauden adingabe guztiak.

- **Sexu-indarkeria.** Onartzen ez den sexu-izaerako jokaera guztiak sartzen dira. Egungo kontzeptu juridiko guztiak kontuan hartzeko, sexu-indarkeriak dituen hiru moldeak bereziko dira:
 - Sexu-erasoak: indarkeria eta larderia tartean daudenean.
 - Sexu-abusuak: indarkeriarik eta larderiarik gabe egiten direnean. Horren barruan daude nahimenezko edo adimenezko ahalmena mugatua dutelako baliozko ezagutza ez duten emakumeei egindako abusuak ere.
 - Sexu-jazarpena: ahozko jokaerak zein ahozkoak ez diren eta fisikoak diren jokaerak, sexu-izaerakoak eta nahi ez direnak, laneko, irakaskuntzako edo antzeko harremanen esparruan egiten direnak, emakumearen duintasunaren aurka jokatzeko edota larderiako ingurune aurkako, laidogarri, umiliagarri edo iraingarria sortzeko asmoz edo sortzearen ondorioz.

- **Familia barruko sexu-indarkeria.** Familia egitura pribilegiatua da sexu/genero/sexualitate sistema birsortzeko orduan, eta, hortaz, leku erreal eta sinbolikoa da, eta bertan nesken, nerabeen eta emakumeen aurkako indarkeria egiten da. Indarkeria hori etxeko indarkeriarekin identifikatzen da maiz, eta hala agertzen da gaur egungo legerian. Familia barruko sexu-indarkeria terminoa erabiliko da familiako kideek (aita, anaia, aitona, osabak, etab.) neska, nerabe eta adin guztietako emakumeei jasanarazten dizkieten kontrol, eraso, arbuio, bazterkeria, ... mota guztiak adierazteko.

- **Lan-esparruko jazarpen sexistak.** Definizio horren barruan sartuko dira emakumeen aurkako, edo emetasunarekin identifikatzen diren edota lotzen diren jokaera, sinbolo, definizio, hitz edo eginkizun guztien aurkako aurreiritzietan oinarritutako jokabideak. Etsaitasunez adieraz daiteke (gizonek emakume batzuegan duten kontrol soziala legitimatuz) edo onguraz (emakumeak zaindu eta babesten dituen gizon baten beharra daukaten emazte, ama eta objektu erromantikotzat hartuz).
 Jokabide horiek lan egiteko baldintzetako bat bihurtzen direnean, edo lan-ingurune etsaia, larderiakoa eta umiliagarria sortzen dutenean, jazarpen sexistaz hitz egiten ari gara. Jazarpen hori zuzenean egin dezakete lankideek, mendekoek edo nagusiek, baina, halaber, enpresako politikak onartu eta mantentzen dezakete.

INDARKERIA MATXISTAREN BESTE MOLDE BATZUK

Indarkeria matxistaren beste molde horiek berekin duten adierazpen zuzenaz gain, egiturazko intolerantzia sinbolikoa dago maitasun- eta sexualitate-adierazpen horien aurka, gizartean oso onartuta dagoena eta birsortu egiten dena, eta, hala, indarkeria horren hiru molde ezagunen aurkako egundoko gizarte-fobia sortu da:

Transfobia: gorputz intersex, transexual edo transgeneroen aurkako ezinikusia eta gaitzespena. Era estrukturalan hainbat indarkeria mota daude, patologizazio medikotik eraso fisikora eta bakartzera eraman dezakeen indarkeria zuzeneraino.

Lesbofobia: beste emakume batzuekin maitasun eta sexu-harremanak dituzten emakumeen aurkako ezinikusia eta gaitzespena. Bikote horiengan sexua ikusezin bihurtzea lesbofobia molde ohikoenetako bat da, baina ez bakarria, arau heterosexuala haustearen aurkako indarkeria matxista mota hori indarkeria sexistaren adierazpenez osatzen baita.

Homofobia: beste gizon batzuekin maitasun- eta sexu-harremanak dituzten gizonen aurkako ezinikusia eta gaitzespena. Indarkeria matxista mota hau bereziki oldarkorra da gainerako gizonek zuzenean adierazteko orduan, eta horri gehitu behar zaio heteronormatibitateari aurre egiten dioten eta betiko maskulinitasunaren oinarriak zalantzan jartzen dituzten gizonen aurkako arbuioaren zama sinbolikoa.

Genero barneko indarkeria: kontzeptu hau sexu/genero bereko pertsonen arteko maitasun eta sexu-harremanen baitan gertatzen den indarkeriari dagokio, molde guztiak barne daudela.

Tratu txarraren adierazpenak eta genero-indarkeriaren moldeak partekatzeaz gain, adierazpen horri gehitu behar zaio bikote-harreman lesbiko edo homosexualak dituzten pertsona askok hori ezagun ez egiteko hartzen duten erabakia, sexu-aukera horrek berekin duen estigma eta errefusa direla kausa; hala bada, hori kontrol eta xantaia moduan erabil dezake indarkeria gauzatzen ari denak.

Berdintasunezko ezkontzatik abiatuta, sexu bereko bikoteen nolabaiteko normalizazioa gertatu da, eta horren ondorioz indarkeria mota hau ikusezin mantendu da orain arte, indarkeria matxisten barruan erregistratu gabe; hala bada, beharrezkoa da dituen berezitasunetan sakontzea, bikote heterosexualen arteko harremanei buruz ikasitakoa mekanikoki gainditu gabe. Hala ere, garrantzitsua da onartzea bikote hauek osatzen dituzten bizikidetza-nukleoaren barruan dauden adingabe guztiak ere genero barneko indarkeria mota honen dinamiken eta ondorioen biktima direla.

3.- LEGE-ESPARRUA

Gaur egun, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudi zabala dago, administrazio publikoek eta erakunde pribatuek haien erakundeetan aukera-berdintasunaren printzipioa zein genero-ikuspegia ezartzeko dituzten betebeharrak barne hartzen dituen.

Administrazio eta erakundeen eguneroko jardueretan gidaliburu eta bide-orri gisa erabiltzeko diseinatu diren tresnetan oinarritu da araudi hori, horrela generoaren ikuspegia eta beharrezkoa den balio aldaketa txertatzea erraztuz gizarte berdinzaleago bat lortzeko asmoz.

Plan honetarako nazioarte, estatu, eskualde eta toki mailako erreferentziako arauak aintzat hartu dira. Horrez gain, EAE-ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak proposatzen duen moduan, *“VII. Planaren egiturak, oinarrian, bere helburuak beste programa-esparru batzuekin bat etorrarazteko borondatea du; zehazki, hauek: Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren helburuak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Europar Batasunaren 2016-2019 Konpromiso Estrategikoa”*. Uribe Kostako Mankomunitateko (aurrerantzean UKZM) Berdintasunerako III. Planak ere kontuan hartuko ditu esparru programatiko horiek.

NBE

Erakunde honen berdintasunaren aldeko apustua 1975 urtea "Emakumeen Nazioarteko Urte" gisa deklaratzearekin eta 1979an **CEDAW** (Emakumearen aurkako Diskriminazioa Ezabatzeke Batzordea) sortzearekin batera islatu zen. Estatu espainiarrak 1983ko abenduaren 16an berretsi zuen Hitzarmen hori.

Emakumearen Munduko Jardunaldien ospakizunak (Mexiko, 1975; Kopenhage, 1980; Nairobi, 1985; eta, Beijing, 1995), baita Beijing + 5, Beijing10 + eta Beijing + 15 ondorengo saioak ere, denak New Yorken ospaturikoak 2000, 2005 eta 2010 urteetan, hurrenez hurren. Ibilbide honek mundu mailan berdintasun politikak modu eraginkorrean eta iraunkorrean bideratzea sustatu du.

1993. urtean, **Emakumearen kontrako indarkeriaren ezabatzeari buruzko Adierazpena** onartu zen, "emakumeen aurkako indarkeria" definizioa ezarriz eta estatuak hura ezabatu nahian egin ditzaketan ekintzak proposatuz.

EUROPAKO BATASUNA

Emakume eta gizonen berdintasuna Europar Batasuneko funtsezko printzipio bat da. Europar Batasunak landutako araudi anitzaren barruan nabarmendu behar da:

Amsterdamgo Ituna. 1997ko urriaren 2an sinatu zen. Itunaren helburu gisa berdintasuna sustatzea eta desberdintasunak ezabatzea adierazi ziren. Alderdi garrantzitsu bat da generoaren integrazioaren kontzeptua sartu zela, honela adieraziz: "Artikulu honetan aurreikusitako jarduera guztietan, Erkidegoak gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzeko

helburua izango du eta berdintasuna sustatuko du". Itun honetan, gizon eta emakume langileen soldata berdinen printzipioa azpimarratu zen ere lan beragatik edo balio bereko lanagatik. Ekintza positiboen ezarpena ere baimendu egin zen, literalki adieraziz «Lanean gizonen eta emakumeen arteko berdintasun osoa bermatzeko, tratu-berdintasunaren printzipioak ez dio eragotziko inolako estatu kideri abantaila konkretuak eskaintzen dituzten neurriak mantentzea edo onartzea baldin eta gutxien ordezkaturiko sexuak jarduera profesionala gauzatzeko edo karrera profesionalean desabantailak saihestu nahiz konpentsatzeko bideratuak badaude».

2002/73/EE Zuzentaraua, lanean sartzean, lan-heziketan eta promozioan eta lan-baldintzetan gizonen eta emakumeen tratu berdinen printzipioa aplikatzeari buruzkoa.

2004/113/EE Zuzentaraua, gizon eta emakumeen tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatu duena ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean

2006/54/EE Zuzentaraua, gizonen eta emakumeen artean tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeko enpleguarekin eta okupazioarekin zerikusia duten gaitan

Istanbulgo Hitzarmenak jauzi kualitatibo handia ematen du Europan diseinatutako lehen mekanismo delako, "emakumeen aurkako indarkeria mota guztien aurrean babes emateko, eta hura prebenitzeko, zigortzeko eta ezabatzeko", eta gobernu maila zein eskumen- arlo guztietan Estatuei betebeharrak ezartzen dizkie.

Emakumeen aurkako indarkeria modu espezifikoan lantzen duen lehen itun europarra da, indarkeria sexuala, fisikoa, psikologikoa eta ekonomikoa, mutilazio genitala eta jazarpena barne hartzen dituelarik. Era berean, indarkeria matxista giza eskubideen urraketa gisa aitortzen du, eta gutxieneko estandarrak ezartzen ditu prebentzioan, babesan, zigor penalean eta zerbitzuetan, eta Ituna berretsi duten estatu kideek behar bezala erantzuten ez badute ondorioen erantzule izango dira. Espainiako Estatuan 2014ko abuztuan sartu zen indarrean (Hitzarmena sinatu eta hiru urte ondoren).

Hitzarmen honek gako diren hainbat alderdi ditu, onetsi duten herrialdeetan indarkeria matxistaren aurrean ematen den erantzuna hobetzeko. Zentzu honetan, ardatz hauek nabarmendu behar dira:

- Berdintasuna sustatzea indarkeria desagerrarazteko (4 - 6 artikulua).
- Indarkeria matxistaren beste modu batzuk aintzat hartzea (36 - 42 artikulua).
- Diskriminazio anitzaren aurka borrokatzea (4. artikulua).
- Hezkuntza prebentzio-sistema gisa. Hitzarmenak azpimarratzen du hezkuntza-sistema sendotzeak berdintasuna sustatzeko eta indarkeria saihesteko balio duela. Horrela, 14. artikulua arabera, hezkuntza ofizialaren maila guztietako programetan gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, genero estereotipoen eta genero indarkeriaren aurkako borroka, zein elkarrekiko errespetua eta norbanakoaren osotasuna txertatzearen konpromisoa hartzen da.
- Indarkeriaren aurkako egoerari erantzuteko betebeharra, salaketa edozein dela ere (18.4 artikulua).
- Adingabeok zuzeneko biktimak direla kontuan hartzea. Zehazki, 31. artikulua "seme-alaben (tratu txarren emailearenak) zaintzearen eta bisitaren inguruko eskubideak

ezartzerakoan, indarkeriaren gertakariak kontuan hartuko direla bermatzeko legeak edo beste beharrezko neurri batzuk" ezartzearen konpromisoa hartzen da, "biktimaren eta seme-alaben eskubideak eta segurtasuna arriskuan jar ez ditzaten zaintza- edo bisita-eskubide horiek".

- Biktimek kalte-ordaina eskuratzeko eskubidea (30. artikulua).

2016-2019 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko Europar Batasunaren konpromiso estrategikoa. Europako Batzordeak lehentasunezko esparru hauek ezarri zituen bere lan-programan, lehentasunezko esparru bakoitzean ekintza zehatzak jasotzen zituelarik:

- lan merkatuan emakumeen partaidetza areagotzea eta emakumeen eta gizonen independentzia ekonomiko berdina sustatzea;
- sexuen arteko desberdintasunak murriztea ordainsarrietan, diru-sarreretan eta pentsioetan, emakumeek pairatzen duten pobrezari aurre egiteko;
- emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea erabakiak hartzeko esparruetan;
- indarkeria sexistari aurre egitea eta biktimak babestea eta laguntzea;
- emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta mundu osoko emakumeen eskubideak sustatzea.

ESTATU MAILA

Estatu mailan, azken urteotan garatu den lege-esparrua nazioarteko eskakizunei erantzuten die:

Abenduaren 28ko **1/2004 Lege Organikoa**, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa, genero indarkeriari buruz ezarri zuen definizioarengatik azpimarratu behar da. 5 titulu ditu (Sentsibilizazio-, prebentzio- eta detekzio-neurriak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubideak, babes instituzionala, zigor-arloko babesa, eta babes judiziala), eta horien bitartez genero-indarkeriaren aurkako esparru integrala ezartzea bilatzen da.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko **3/2007 Lege Organikoa** funtsezko kontzeptuetan ezarritako definizioengatik nabarmendu behar da, esate baterako, tratu- berdintasunaren printzipioa, zuzeneko eta zeharkako diskriminazioa, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena, ekintza positiboak... Horrez gain, administrazio publikoak, enpresak eta sektore pribatua inplikatzeko dituzten hainbat alderdi ezartzen dira artikulua batzuetan. Azken kolektibo honi dagokionez, IV. Titulua aipatzekoa da (Aukera-berdintasunean lan egiteko eskubidea) alderdi hauek nabarmentzen direlako: negoziazio kolektiboan berdintasuna sustatzea, enpresa pribatuetan berdintasun planak egitea eta aplikatzea; edo lanean sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena saihesteko neurri zehatzak ezartzea.

EAE MAILA

4/2005 Legeak, ekainaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, jarduera, transbertsalitate eta ekintza positiboaren inguruko behar berriak aintzat hartu zituen eta gure erkidegoan berdintasuna sustatu egin zuen. Lege honek zortzi printzipio orokor ezartzen ditu,

euskal administrazio publikoen jarduerak gobernatzen eta gidatzen dituztenak berdintasunari dagokionez. 7. artikulua adierazten du, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan, **tokiko administrazioari** dagokiola, banaka zein partaide diren Mankomunitate edo Kuadrillen bidez, Legearen aplikazio eraginkorra bermatzeko hainbat funtzio.

UDALERRI MAILAN

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko emakume eta gizonen arteko berdintasun politikarako Ordenantza arautzailea. Tresna arauemaile honen balioa aitortuz, emakumeen aurkako diskriminazio mota guztiei aurre egiteko bultzatutako udal politika publikoak sendotzea eta hobetzea, eta udalerrietako emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubidea sustatzea du helburu Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak. Ordenantza honekin, gizarte-justiziari, gizarte-iraunkortasunari eta biztanle guztien bizi-kalitateari bultzada eman nahi zaio Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten zazpi udalerrietan.

12. artikulua 'Plangintza, jarraipena eta ebaluazioa' honako hau jasotzen du 4. atalean: "Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zerbitzuak diseinatu eta bultzatuko ditu berdintasunerako plana zein horren jarraipena eta ebaluazioa egiteko lanak, betiere Mankomunitateko Lehendakariak emandako jarraibideen arabera. Arlo guztiek beren urteko programazioen bidez aplikatuko dute eta haren jarraipena egiteaz arduratuko dira; horretarako, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zerbitzuaren aholkuak jaso ahalko dituzte."

Ordenantza bateratuaz gain, UKZM osatzen duten udalerriek, Gorkiz, Plentzia, Barrika, Urduliz, Sopela eta Lemoiz, beren **Udal Ordenantza** propioa garatu dute euren udalerrien jarduerak generoaren ikuspegitik arautzeko.

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Koordinaziorako Protokoloa da udalerrri mailan duten beste tresna bat, indarkeria sexistaren inguruan esku-hartzen duten eragileen arteko koordinazioa arautzen duena. Honako Plan honetan jasotzen den 'Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko Bizitzak' deituriko III. ardatza indartzeko aukera ematen du Protokoloak.

4.- HELBURUAK

Plan honen helburuak honako hauek dira:

1. Emakume eta gizonen berdintasunerako III. Plan bat diseinatzea, Mankomunitate mailan zein udalerrri mailan ekintzak ezarriko dituen.
2. Teknikarien eta politikarien sentsibilizazioa sustatzea genero-ikuspegia eguneroko lanean integratzearen beharra helaraziz.
3. Balioen aldaketa sustatzearen beharra helarazi herritarren sentsibilizazioa sustatuz eta emakumeek historikoki egindako lanaren balioa aitortuz, hala nola, zaintza eta bizitzak mantentzearen aldeko lanak eta haien beharrak ikusgai eginez.
4. Gizonen sentsibilizazioa sustatzea etxeko eginkizunetan, senideen zaintzan, eta indarkeria matxistaren borrokan, beraiek ere erantzukizuna dutela helaraziz, eta bide batez, zaintza-etikari eta giza eskubideei garrantzia emanez.
5. Gizarte-egiturarekin, Berdintasun Batzordearekin eta udalerrietako bizilagunekin sareak sendotzea, tokiko politiken jarraipena egiteko eta indarkeria matxistaren kontrako sentsibilizazioaren alde elkarlanean aritzeko.
6. III. Planaren exekuzioa ahalbidetuko duten egiturak sortzea edota mantentzea.

5.- METODOLOGIA

Plan hau garatzeko erabilitako metodologia politikarien, teknikarien eta herritarren parte hartzean oinarritu da; izan ere, UKZM-ko Berdintasunerako III. Planak eragina izango duen pertsonen parte-hartzerik gabe, ezin izango zitekeen osatu hemen aurkezten dugun honako dokumentu hau. Horrela, eskualdeko bizilagun guztiek gutxienez derrigorrezko aurretiko diagnostikoaren elaborazioan parte hartzeko aukera izan dute, izan ere, plana egiteko diagnostikoa beharrezkoa izan da. Horretarako, online bidezko galdeketa bat hedatu zen WhatsApp, posta elektronikoko eta Udaletako zein Mankomunitateko webguneen bitartez bizilagunen berdintasunaren inguruko pertzepzioa ezagutzeko.

Galdeketa bidezko herritarren parte hartzeaz gain, sortutako egiturak aprobe txatu egin dira gaur egun dauden beharrak biltzeko eta egun arte egindako guztia baloratzeko asmoz.

Batzorde Politikoa informazio iturrietako bat izan da. Batzordearen bilerak erabili dira, diagnostikoari eta planari dagokionez, politikarien ekarpenak eta ebaluazioak jaso ahal izateko, eta etorkizunari begira III. Planaren barne sartu beharreko ekintzen proposamenak bildu dira.

Teknikarien parte-hartzeari dagokionez, alde batetik, Udal bakoitzeko idazkariek elkarrizketa sakonetan parte hartu zuten eta, bestetik, eztabaida taldeak osatu ziren sail desberdinetako teknikariek.

Azkenik, **Uribe Kostako Emakume eta Gizonen Kontseiluak** bere ekarpenak eta balorazioak egiteko aukera izan du prozesuaren fase desberdinetan zehar egindako bileretan.

Inplikaturiko pertsonen eta diagnostiko eta planaren garapenean aktiboki parte hartu dutenek aukera izan dute euren ekarpenak baloratu, bildu eta erantzun izan direla egiaztatzeko. Modu honetan, ibilbide honetan abiatutako sentsibilizazio- eta ikasketa-prozesuan edukiak txertatu dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko hausnarketa sustatuz, beren bizitzan, beren herrietan, haien harremanetan, etab. gogoeta eginez. Aldi berean, prozesu horrek emakumezkoen tresnak eskura jarri dizkie beren ahalduntze indibidual eta kolektiboaren prozesu propioarako.

Metodologia honen bidez, eragile politiko, tekniko eta sozial desberdinen inpresioak eta beharrak biltzeko aukera egon da, eta arlo guztietan emakumeen eta gizonen benetako egoera zehazten duen diagnostikoa egin ahal izan da. Ondorioz, helburu errealistak eta ekintza exekutagarriak dituen III. Plan bat lortu da.

6.- LAN-PROZESUA

Berdintasun teknikariarekin ospaturiko lehen bilera egin ondoren, ondoren azaltzen den prozesuari ekin zitzaien. Bilera honen lehen helburua lan-prozesua zehaztea eta momentu hori arte egindako ekintzak zein egin gabe zeudenak aztertzea izan zen. Bigarren helburua talde sustatzailean parte hartuko zuten pertsonak adostea zen. Azkenean honako hauek izan ziren: **UKZM-ko Zinegotzi Delegatua, Berdintasun Teknikaria eta Uribe Kostako Emakumeen Kontseiluaren ordezkari bat.**

Lehenengo kontaktu honen ondoren, talde sustatzaileari biltzeko deialdia luzatu zitzaien eta diagnostiko-ebaluazioa zein III. Plana egiteko kronograma eta erabili beharreko metodologia aurkeztu zitzairen. Era berean, estrategiak eta partaidetza-kanalak definitu egin ziren.

Kontuan izan behar da talde sustatzaile horren funtzioak ondokoak izan direla:

- Informazioaren eta datuen bilketan laguntzea eta ebaluazioari, diagnostikoari eta Planari begira ideiak proposatzea.
- Adostasunak eta erabakiak hartzea.
- Eraitzen sozializazioan eta parte hartzerako deialdien hedapenean laguntzea.
- Prozesuaren fase guztien jarraipena egitea.

Ebaluazio-diagnostikoa eta III. Plana egiteko lan-prozesua bi bloketan banatu da. Lehenengoa izan da Mankomunitateko Berdintasunerako II. Plana ebaluatzen eta ondorengo berdintasunaren eta desberdinkeriararen diagnostikoa egiteko; bigarren blokea Berdintasunerako III. Plana egiteko izan da.

Ebaluazio eta diagnostikoaren zatirik handiena idazkariarekin izandako elkarrizketa pertsonal eta pertsonalizatu bidez egin da. Elkarrizketen helburua udalerrri bakoitzeko eta UKZM-ko berdintasunaren eta desberdinkeriararen egoeraren irudi orokor bat osatzea zen.

Beste funtsezko elementu bat ospaturiko eztabaida taldeak izan dira. Lehenik eta behin, gizarte-zerbitzuen profesionalekin eta emakumezkoen eta gizonezkoen bizi-kalitatea hobetzearen alde lan egiten duten eragileekin egin zen eztabaida-talde bat. Bestalde, bigarren eztabaida talde bat ospatu zen Kultur eta Euskara teknikariarekin, eta hirugarren taldea Mankomunitateko udalerrri guztietako politikariarekin izan zen. Azkenik, eztabaida talde bat ospatu zen, Andra Barriak Emakumeen Kontseiluarekin, Mankomunitateko emakumeei hitza emanez honela.

Diagnostiko-ebaluazioak eman dituen emaitzak eta ondorioak lortu ondoren, **Uribe Kostako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2019-2023)** prestatu zen.

Berdintasunerako II. Planaren ebaluazio-diagnostikoa egitearen ondorioz eta Berdintasun Teknikariaen ekarpenekin batera ekintza-plan bat proposatu egin zen hasiera batean.

Proposamen hori batzorde politikora eraman zen, eta prozesuan parte hartu zuten teknikariek partekatu zen ere. Azkenik, Emakumeen Kontseiluari helarazi zitzaion proposamena.

Politikarien, teknikarien eta herritarren adostasunaren ondorioz lortutako UKZM-ko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana hurrengo orrialdeetan jasotzen da. Emakundek onarturiko EAE-ko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Planak ezartzen dituen Ardatzak aintzat hartuz osatu da.

7.- EKINTZA-PLANA

GOBERNU ONA

Politikan parte hartzen duten pertsonen parte-hartzea beharrezkoa eta funtsezkoa izango da honako berdintasunerako Plan hau gauzatzeko. Gobernu Ona inplikazio pertsonaletik eratorritako konpromisoen ondorioz lortuko da, eta era berean, Gobernu Ona helburu gisa hartzen bada, onartu egiten da generoaren ikuspegia izateko eta balore aldaketak egiteko trebakuntza pertsonal eta kolektiboa funtsezko ardatza dela. Bestalde, benetako aldaketa lortzeko beharrezkoa izango da ere berdintasunari buruzko legedia betetzea, genero ikuspegia duten aurrekontuen aldeko apustua egitea, eta ekintzak burutzeko aurrekontu handiagoa eskaintzea, beharrezko den berdintasunerako diziplina anitzeko unitatearen egonkortasuna eta iraunkortasuna bermatuz.

‘Nazioartean aho batez onartzen da ezin dela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egin baldin eta legeriak eta politika publikoek ez badituzte berekin ekartzen konpromisoak betetzea bermatuko duten gobernu-zuzentzarauak, aurrekontuko diru-izendapenak, erakundearteko akordioak, kudeaketa gardeneko prozedurak eta kontrol-sistemak’. Emakunde, EAE-ko 2018ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.

I.PROGRAMA. KONPROMISO POLITIKOA			
GO.1. 1.helburua. Berdintasunerako araudi espezifikoak betetzea sustatzea			
EAB 2015/12/8 Erabakia ² . Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko berariazko arauak.			
EAB 2016/7/21 Erabakia ³ . 1. zenbakia. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko berariazko arauak.			
	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
GO.1.1 III. Planaren jarraipena egiteko koordinazio	Berdintasuna	Koordinaziorako mahaiaren urteroko	2019-2023

² Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordearen 2015eko abenduaren 18ko Erabakia, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan zuzenbide-esparrua indartzeari buruzkoa.

³ 2016ko uztailaren 21eko Erabakia, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordearena, zeinaren bidez konpromiso batzuk hartzen baitira, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 legearen betetze, garapen eta aplikazioari buruz 2015ean egindako ebaluazioaren emaitzetan oinarrituta.

teknikorako mahaia sortu eta sustatzea.		bilera kopurua	
GO.1.2 Udal Ordenantzak bete ditzaten sustatzea.	Berdintasuna	Ordenantza bakoitzeko ezarritako artikulua kopurua.	2019-2023
GO.1.3 Oraindik onartu ez den udalerrietan Berdintasunerako Ordenantza onartu eta ezar dezaten sustatzea.	Berdintasuna, idazkaritzak, alkatetzak	Mankomunitateko udalerrietan onartutako ordenantza kopurua.	2020
GO.1.4 Generoaren araberako eraginaren txostenen kopurua areagotzea Ordenantzetan, Hirigintzan eta Lan Publikoaren eskaintzan.	Berdintasuna, idazkaritzak	Generoaren araberako eraginari buruz gauzaturiko txosten kopurua	2019-2023
GO.1.5 Berdintasuna sustatzeko neurriak jasotzen dituzten arauen ehunekoa handitzea.	Berdintasuna, Idazkaritzak	Onarturiko berdintasunerako arau kopurua.	2020-2023

GO.2. 2.helburua. Berdintasun politiken garapenerako aurrekontuak areagotzea

4/2005 Legea. 14.artikulua. Administrazio autonomiko, foral eta lokalen aurrekontuak.

EAB 2016/7/21 Erabakia. 2. zenbakia. Berdintasun-polituketara bideratutako aurrekontua

4/2005 Legea. 19.artikulua. Generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzea.

	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
GO.2.1. Berdintasunerako berariazko aurrekontuak handitzea Udal eta Mankomunitate guztietan.	Berdintasuna, alkatetzak, idazkaritzak, kontu-hartzaileak	Udaletako eta UKZM-ko urteroko berdintasunerako aurrekontuaren ehunekoa	2019-2023

		maila.	
GO.2.2 Indarkeria matxistari aurre egin dioten emakumeei eta bere senideei arreta eta aholkularitza emateko aurrekontu-saila sortzea	Gizarte Zerbitzuak, berdintasuna	Aholkua jaso duen pertsona kopurua, sexuaren arabera	2020
GO.2.3 Arlo bakoitzeko beharrezko baliabideak aztertzea, berdintasun politikak garatzeko eta behar horiei erantzuteko.	Berdintasuna, arlo guztiak	Detektaturiko beharrezko baliabide kopurua	2019-2023
GO.2.4 Erakundeei eta elkarteei zuzendutako diru-laguntzetan berdintasuna sustatzea (kirolekoak, sozialak, kulturalak, jaietakoak ...), genero-irizpideak txertatuz, eta horien ebaluazioa eta jarraipena eginez.	Berdintasuna, Idazkaritzak, Kontu-hartzaileak, kultura, kirola	Diru-laguntza deialdi kopurua; diru-laguntza eskatzen duen elkarte kopurua; diru-laguntza jasotzen duen emakume eta gizon kopurua; diru-laguntzen deialdietan txertaturiko berdintasun- irizpide kopurua.	2019-2023

[BFA] Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean zehaztutako generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dituena. («B.B.O.» abenduak 3).

[EUSKADI] 40/2012 EBAZPENA, abuztuaren 21ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariarena; honen bitartez, Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia, genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak onartzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzkoa, argitara dadila xedatzen da. («E.H.A.A.» irailak 25).

GO.3. 3.helburua. Berdintasunerako plangintza eta bere ebaluazioa handitzea eta hobetzea			
<p>4/2005 Legea. 15.artikuluak. 1, 2 eta 3 atalak. Eusko Jaurlaritzako zein bere sail bakoitzeko eta Foru Aldundien eta Udalen Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako planak.</p> <p>4/2005 Legea. 11.artikuluak. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako unitateak.</p> <p>5/2015 LED⁴. Zazpigarren xedapen gehigarria. Berdintasun-planak Administrazio Publikoetan.</p>			
	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
GO.3.1 UKZM-ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. plana abiatzea.	Berdintasuna	Abiaraztearen hasieradata.	2019
GO.3.2 UKZM-ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana sozializatzea.	Berdintasuna	Plana agertzen den komunikabide kopurua; Plana zabaldu den formatu kopurua; Plana zabaltzeko buruturiko bilera kopurua.	2019
GO.3.3 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana politikariei eta teknikariei aurkeztea.	Berdintasuna	Informaturiko arlo kopurua; informatzeko bilera kopurua; planaren sozializazioan	2019-2020

⁴ 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena

		parte hartzen duen teknikari kopurua.	
GO.3.4 Urtero III. Planaren jarraipena egitea Batzorde Politikoaren bileretan.	Berdintasuna	Urteroko Politika-Batzordearen jarraipen-bilera kopurua; parte-hartzaile kopurua, sexuaren arabera	2019-2023
GO.3.5 UKZM-ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. plana gauzatzeko Urteroko Plan Operatiboak egitea udal bakoitzeko eta mankomunitate mailan.	Berdintasuna	Udalerrri bakoitzeko eta Mankomunitateko urteroko plan operatiboaren kopurua.	2019-2023
GO.3.6 Plana urtero ebaluatzeko zein ebaluazio orokorra egiteko sistema bat planifikatu eta ezartzea.	Berdintasuna eta arlo guztiak	Ezarritako ebaluazio sistema kopurua.	2019-2023
GO.3.7 UKZM-ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana amaitzen den urtean (2025) diagnostiko eta ebaluazio bat egitea, eta bide batez, UKZM-ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren diseinuari hasiera ematea.	Berdintasuna	Egindako diagnostiko eta ebaluazio kopurua.	2022
GO.3.8 Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzua mantentzea.	Lehendakaritza eta osoko bilkura	Berdintasun zerbitzuaren mantentzea	2019-2023
GO.3.9 Berdintasun teknikariaren egoera eta maila profesionala hobetzea eta arloa laguntza administratiboarekin sendotzea.	Lehendakaritza eta osoko bilkura	Berdintasun alorrean lan egiten duen pertsona kopurua; buruturiko hobekuntza kopurua.	2019-2023

II.PROGRAMA. BERDINTASUNERAKO PRESTAKUNTZA

GO.4. 1.helburua. Mankomunitateko eta Udal bakoitzeko langile guztiak berdintasun arloan prestatzea, politikariak barne.

4/2005 Legea. 17.1 artikulua. Euskadiko administrazio publikoetako langileentzako berdintasun arloko oinarritzko prestakuntza, progresiboa eta iraunkorra

4/2005 Legea. 17.2 artikulua. Berdintasunerako prestakuntza planak.

EAB 2016/7/21 Erabakia. 3.zenbakia. Prestakuntza.

	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
GO.4.1.1 Politikariak generoaren eta indarkeria matxistaren teorian prestatzea legegintza bakoitzaren hasieran.	Berdintasuna	Egindako prestakuntza-saio kopurua; parte-hartzaile kopurua, sexuaren arabera.	2020
GO.4.1.2 Gizarte Zerbitzuetako langileei prestakuntza berezia eskaintzea.	Berdintasuna, Gizarte Zerbitzuak	Egindako prestakuntza-saio kopurua; parte-hartzaile kopurua, sexuaren arabera.	2020-2023
GO.4.1.3. Idazkari esku-hartzaileei edota ATO/TAG-ei prestakuntza erraztea, 4/2005 Legeak ezartzen duenari buruzko ezagutza sakon dezaten.	Berdintasuna, idazkaritzak, kontu-hartzaileak, arlo ezberdinetako ATO/TAG	Egindako prestakuntza-saio kopurua; parte-hartzaile kopurua, sexuaren arabera.	2020-2023

<p>GO.4.1.4. Udal jaietako programazioan eta jaien antolakuntzara zuzendutako diru-laguntzetan genero-ikuspegia txertatzea (hizkuntza eta irudi inklusiboak, orkestrak aukeratzean, emakumezkoak gauza bihurtzea debekatzea,...). Jai Berdintasuneratz Behatoki baten sorrerarekin hasi Uribe Kostan</p>	<p>Kultura, jaiak</p>	<p>Berdintasun irizpideak dituen diru-laguntza kopurua; genero-ikuspegia duten jai-programa kopurua; genero ikuspegia duten ospakizun edo ekintza kopurua;</p>	<p>2020-2023</p>
---	-----------------------	--	------------------

<p>III. PROGRAMA. GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN</p>			
<p>GO.5. 1.helburua. Genero-ikuspegia estatistiketan eta azterlanetan txertatzea. 4/2005 Legea. 16.artikulua. Estatistiken eta azterlanen egokitzapena.</p>			
	<p>Arlo arduradunak</p>	<p>Ebaluatzeko adierazleak</p>	<p>Gauzatzeko urtea</p>
<p>GO.5.1.1 Modu transbertsalean azterlanetan eta estatistiketan sexu aldagaia aintzat hartzen duten dokumentu kopurua areagotzea.</p>	<p>Arlo guztiak</p>	<p>Sexu aldagaia duten dokumentu eraldatuen edo berrien kopurua.</p>	<p>2019-2023</p>
<p>GO.5.1.2 Informazioaren ustiaketan eta azterketan sexu aldagaia erabiltzen duten dokumentuen kopurua handitzea.</p>	<p>Arlo guztiak</p>	<p>Sexu aldagaia duten dokumentu eraldatuen edo berrien kopurua.</p>	<p>2019-2023</p>

GO.5.1.3 Mankomunitateko eta Udal bakoitzeko enplegu publikorako sarbide hautaketa- eta promozio-probetan berdintasunarekin lotutako edukiak txertatzea	Idazkaritzak	Buruturiko prozesu selektiboen kopurua; berdintasunari buruzko eduki kopurua hautatze-prozesuetan.	2019-2023
--	--------------	--	-----------

GO.6. 2.helburua. Herritarrekin komunikazio zuzenean eta zeharkakoan berdintasuna txertatzea			
4/2005 Legea. 18.artikulua. Hizkuntza mota guztien erabilera ez sexista.			
4/2005 Legea. 26.artikulua. Gizarte-komunikabideak eta publizitatea.			
	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
GO.6.2.1 Euskaraz eta gaztelaniaz hizkuntza ez sexistaren erabilerari buruzko prestakuntza eskaintzea teknikariei eta politikariei.	Berdintasuna	Ospaturiko prestakuntza-saio kopurua. Prestakuntza-saio kopurua hizkuntzaren arabera; parte-hartzaile kopurua, sexuaren arabera.	2020
GO.6.2.2 Hizkuntza ez sexista erabiltzen den argitaratutako dokumentuen (bandoak eta komunikazio ofizialak) ehunekoa handitzea, gaztelaniaz nahiz euskaraz.	Arlo guztiak	Argitaratutako dokumentu kopurua; Hizkuntza ez sexista erabiliz argitaratutako dokumentu kopurua.	2019-2023
GO.6.2.3 Mankomunitateko eta Udal bakoitzeko webgunetan hizkuntza ez sexista eta irudi inklusiboak erabiltzen duten edukien kopurua handitzea.	Arlo guztiak	Webean argitaratutako eduki kopurua; Hizkuntzaren erabilera	2019-2023

		ez sexista eta irudien erabilera inklusiboa duten argitalpen kopurua.	
GO.6.2.4 Mankomunitate eta udal guztietarako hizkuntza inklusiboa duten dokumentu/inprimaki estandarrak erraztea (lan-baimenak, errolda, eskariak, eta abar).	Berdintasuna	Hizkuntza inklusiboa erabiliz aldaturiko edo sorturiko dokumentu kopurua	2019-2023
GO.6.2.5 Mankomunitatean eta Udaletan onarturiko berdintasunari buruzko oinarrizko dokumentuei dagokienez, pertsona guztiei irisgarritasuna erraztea	Idazkaritzak	Berdintasunari buruzko dokumentuen irisgarritasun-maila	2019-2023

	GO.7. 3.helburua. Kontratueta, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak txertatzea 4/2005 Legea. 17.3 artikulua. Berdintasun teknikarien esperientzia edota prestakuntza. 4/2005 Legea. 20.4.a) artikulua. Emakumeei lehenetsuna emateko klausulak aukeratze-prozesuetan 4/2005 Legea. 17.4 artikulua. Aukeratze-prozesuen gai-zerrenda.		
	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
GO.7.3.1 Mankomunitatean eta Udaletan sinatzen diren kontratueta berdintasunerako klausulak txertatzea, baita diru-	Idazkaritzak eta ATO/TAG	Burururiko kontratu eta lizitazio kopurua;	2019-2023

laguntzetan eta hitzarmenetan ere.		txertaturiko berdintasunerako klausula kopurua.	
------------------------------------	--	---	--

IV. PROGRAMA. KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA			
GO.8. 1.helburua. Berdintasunerako koordinazioa eta lankidetzaren indartzea.			
4/2005 Legea. 12.artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea.			
4/2005 Legea. 13.artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea.			
	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
GO.8.1.1 Eskualde mailako eta udalerrri bakoitzeko Berdintasunerako Informazio-Batzorde Politikoak mantentzea Berdintasunerako III. Planaren jarraipena egiteko.	Alkatetzak, Lehendakaritza	Jarraipena egiteko bilera kopurua; parte hartzaile kopurua, sexuaren arabera.	2019-2023
GO.8.1.2 Mankomunitateko Sail arteko Batzorde Teknikoa mantentzea eta sustatzea.	Berdintasun	Jarraipena egiteko bilera kopurua; parte-hartzaile kopurua, sexuaren eta sailaren arabera.	2019-2023
GO.8.1.3 Mankomunitateko 8 udaletxeetako idazkari eta kontu-hartzaileekin edota ATO/TAG-ekin batera Erakunde arteko Batzorde Teknikoa sustatzea eta mantentzea.	Berdintasun	Jarraipena egiteko bilera kopurua; parte-hartzaile kopurua, sexuaren eta Udalaren arabera.	2019-2023
GO.8.1.4 Udal arteko Kultur-Batzorde Teknikoa sustatzea eta mantentzea.	Berdintasuna	Jarraipena egiteko bilera kopurua; Udal parte-hartzaileen kopurua; parte-hartzaile kopurua, sexuaren arabera.	2019-2023

GO.8.1.5 Eskualde mailan Batzorde hezkidetzailerak sustatzea ikastetxeekin batera.	Berdintasuna	Ospaturiko bilera kopurua; ikastetxe parte hartzaile kopurua; parte-hartzaile kopurua, sexuaren arabera.	2020-2023
GO.8.1.6 Berdinsarea - Berdintasun teknikarien sarean eta bestelako erakundeekin bileretan parte hartzen jarraitzea.	Berdintasuna	Parte-hartzaileak dituzten bilera kopurua; parte-hartzaileak dauden gunekopurua.	2019-2023

V. PROGRAMA. PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA			
GO.9. 1.helburua. Kontsulta eta parte-hartze guneetan genero-ikuspegia txertatzea.			
4/2005 Legea. 24.5 artikulua. Emakumeen eta elkarte mugimenduaren parte hartze eraginkorra.			
4/2005 Legea. 23. artikulua. Partaidetza soziopolitikoaren xedapen orokorra.			
	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
GO.9.1.1 Mankomunitateko eta udalerririk bakoitzeko lehiaketetako zein edozein motatako epaimahaietan sexuaren araberrako partaidetza orekatua sustatzea.	Berdintasuna, arlo guztiak	Ospaturiko lehiaketa kopurua; antolaturiko epai-mahai kopurua; epai-mahaiak osatzen dituzten pertsona kopurua, sexuaren arabera.	2019-2023
GO.9.1.2 Andra Barriak Emakumeen Kontseiluaren partaidetza eta lankidetzak sustatzea.	Berdintasuna	Ospaturiko bilera kopurua; bertaraturiko emakumezko kopurua.	2019-2023

I. ARDATZA. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Hainbat programa eta legeriak emakumeen ahalduntze indibiduala, kolektiboa, soziala eta politikoa aitortu, gomendatu eta arautzen du. Azken hamarkadetan, emakumeen eta nesken ahalduntzea ardatz nagusia eta funtsezkoa izan da berdintasun politiketan. Nazio Batuen Erakundearen arabera, ez da emakumezkoen bizi-kalitatearen hobekuntzarik izango inongo eremutan jabetuntzarik ez badago.

Emakumeek euren ahalduntze pertsonaleko prozesuetan oinarrituta, hau da, genero-aginduak hautsi dituztenean, euren bizitzaren jabe izaten eta bizitzako hainbat egoeretan erabaki propioak hartzen hasten dira batez ere. Izan ere, emakume gisa interesak eta eskubideak dituztela jabetzen dira eta parte-hartze sozial eta politikora salto egitea erabakitzen dute. Horrela ahalduntze kolektibora igaro, eta gizartearen eraldaketaren alde lanean hasten dira.

Ahalduntze-prozesuen aldeko laguntza publikoaren legitimitatea eta ahalmena bermatuta dago Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearekin.

I.PROGRAMA. EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA LAGUNTZEA			
1.helburua. Emakumezkoen eta feminismoaren papera aitortzea			
	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauatzeko urtea
1. Emakumezko egileen erakusketak (kultura, kirolak, politika ...)	Kultura, berdintasuna	Ospaturiko erakusketa kopurua; emakumezko egileen erakusketa kopurua.	2019-2023
2. Emakumeak agerian gehiago jartzea UKZM-ko arlo sozial eta eskualdeko komunikabide guztietan. (Irratia, tokiko telebista eta abar).	Berdintasuna	Emakumeak bistarazteko ekintza kopurua, gizarte-arlo bakoitzeko.	2019-2023
3. Emakume kirolariak agerian jartzea erreferenteak ezartzeko eta emakumeen artean kirola sustatzeko.	Berdintasuna, kirola	Bistarazitako emakume kirolari kopurua.	2019-2023
2.helburua. Emakumeen genero-kontzientzia, autoestimua eta autonomia garatzea.			
	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauatzeko urtea

1. Lilagune Jabekuntza Eskola mantentzea eta sustatzea	Berdintasuna	Lilagune Jabetze Eskolan egindako jarduera kopurua.	2019-2023
2. Mutilen eta neskatoen artean kirol praktikak modu parekidean sustatzea.	Berdintasuna	Modu paritarioan sustatutako kirol-praktika kopurua; parte hartzen duen ume kopurua.	2019-2023
3. Kirol klubekin batera lan egitea emakumeen taldeak sor daitezten sustatzeko eta neska eta mutileen arteko parekidetasuna taldeetan.	Berdintasuna	Mankomunitatean dauden klubuen kopurua; sorturiko emakumeen talde kopurua; sustaturiko praktika paritarioen kopurua	2019-2023

2. PROGRAMA. EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKOA LAGUNTZEA

1. helburua. UKZM-ko gizarte mugimenduen eta herritarren aldetik berdintasuna sustatzea

	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
1. Andra Barriak UK-ko Emakumeen Berdintasunerako Kontseiluan parte hartzen duten emakume banako eta emakumeen elkarte kopurua handitzea.	Berdintasuna	Elkarte parte-hartzaile kopurua. Bazkide ez diren emakume parte-hartzaile kopurua	2019-2023
2. Mugimendu sozialei eta kultur elkarteei laguntza eta aholkua ematea jarduerak genero ikuspegiarekin antolatzeke.	Berdintasuna	Mankomunitatean dauden elkarte kopurua; Eskainitako aholkularitza kopurua	2019-2023

2.helburua. Emakumeen partaidetza soziala sustatzea arlo eta gune guztietan.			
	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
1. Genero-arrakalak murriztea kirolean, modalitate eta diziplina guztietan, emakumeen parte-hartzea handituz.	Kirola, berdintasuna	Kirolean genero-arrakalak murrizteko sustaturiko ekintza kopurua	2019-2023
2. Ikasteko, aisialdirako, arteko, kulturako eta jaietako baliabideetan ematen den emakumeen eta gizonen partaidetzan genero-arrakalak murriztea.	Kultura, jaiak, berdintasuna	Partaidetza sustatzeko eta genero-arrakala murrizteko egindako ekintza kopurua.	2019-2023
3. UKZM-ko arlo sozial eta politikoan parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea.	Berdintasuna	Jarduera sozial eta politikoetan parte hartzen duten emakume kopurua.	2019-2023
4. Garraio komunitariorako alternatibak aztertzea, herrien arteko mugikortasun geografikoa errazteko eta bultzatzeko eta landa eremuko herrietako herritarrek, batez ere emakumeek, pairatzen duten isolamendu-sentimendua murrizteko.	Hirigintza, Ingurumena	Herrien arteko garraiobide kopurua; Garraio publikoa erabiltzen duten emakume kopurua; Komunitate-garraiorako ezarritako alternatiba kopurua	2019-2023

II. ARDATZA. EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKETA ERALDATZEA ESKUBIDEAK BERMATZEKO

Zaintzarekin zerikusia duten beharrianak asetzeko helburuarekin garatzen ditugun jarduerak dira zainketa-lanak. Orain arte, gizon eta emakumeen oinarritzko zaintza-beharrianen asetzea emakumeei esleitu izan zaio modu naturalean. Zaintzaren ideia patriarkala eraldatzea proposatzen du ardatz honek, ekonomiaren beraren eraldaketaren, emakumeentzako lan duinaren eta genero-ikuspegia duten politika sozialen bidez, besteak beste. Zaintzen ekonomia feministak ekonomiak zaintzen ikusgaitasunean eta balioan sakontzen du, baita erantzukidetasunaren sustapenean ere.

1.PROGRAMA: BERDINTASUNA BEHARREZKO BALIO GISA AITORTZEA ERALDAKETA SOZIAL ETA EKONOMIKORAKO			
1.helburua. Emakumeen eta gizonen berdintasuna balio sozial gisa aitortzea			
	Arlo arduraduna	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
1. Beste arlo batzuek komunikabidetarako eta kanpainetarako txertaturiko edukietan nesken, mutilen, gazteen eta helduen presentzia orekatua eta irudi anitza eta estereotipo sexista gabekoa sustatzea.	Arlo guztiak	Beste eremu batzuek bultzaturiko kanpaina kopurua; Genero ikuspegia duten eduki kopurua.	2019-2023
2.helburua. Herritarren eskubideen erabilera sustatzea hezkidetzaren bidez.			
	Arlo arduraduna	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
1. Ikastetxeei laguntza eta aholkua eskaintzea, bertako kulturaren, politikan eta praktikan genero-ikuspegia txertatzeko eta Hezkidetzaren Planak garatzeko.	Berdintasuna	Hezkidetzaren planak dituzten ikastetxe kopurua; eskaintako aholkularitza kopurua.	2019-2023
2. Ikastetxeekin lankidetzan, estereotipatutako moldeak apurtzen dituzte gurasoak ikasgeletan parte har dezaten animatzea, erreferente berriak ezartzeko helburuarekin.	Berdintasuna	Gauzaturiko kanpaina kopurua; partaide diren guraso kopurua.	2019-2023

Kanpaina.			
3. Ikastetxeetan hezkidetza-batzordeak edota hezkidetza planak laguntzea eta bultzatzea	Berdintasuna	Osaturiko batzorde kopurua	2019-2023
4. Udalekuetako, ludoteketako, gaztelekuetako, eta abarreko begiraleak kontratatzeke baldintza-agirietan genero ikuspegia txertatzea.	Berdintasuna, Gazteria, Idazkaritzak	Genero ikuspegiarekin sinaturiko kontratazio-agiri kopurua.	2019-2023

2. PROGRAMA. EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOA.

1.helburua. Emakumeen autonomia ekonomikoa sustatzea UKZM-tik.

	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
1. Behargintzarekin lankidetzan aritzea, sentsibilizazio kanpainak aurrera eramateko, emakumeek lan-poltsa 'maskulinizatuetan' -eta gizonen 'feminizatuetan'- izena eman dezaten sustatzeko asmoz.	Berdintasuna	Burururiko kanpaina kopurua	2019-2023

3. PROGRAMA: ZAINKETA EKONOMIA FEMINISTA

1. helburua. Bizitzaren jasagarritasunerako zaintza-lanak ezinbesteko baldintza gisa ikusgai egitea eta baloratzea sentsibilizazio-kanpainen bidez

	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
1. Gizon feministen taldeen sorrera bultzatzea, beste gizonentzako erreferente izateko.	Berdintasuna	Sortutako gizonen talde kopurua; Gizonezkoen parte-hartzaile kopurua.	2021 - 2023

2. helburua. Zaintzen antolamendu sozial berri bat babestea zainketa-lana birbanatzeko.

	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
1. Haurtzaindegi-zerbitzura bideraturiko aurrekontu bat ezartzea, aukera hori edozein arlotik antolatutako jarduera guztietan eskaintzeko.	Arlo guztiak	Aurrekonturik ezartzea	2019-2023
2. Mankomunitatean kokatutako enpresei zuzendutako kanpainen diseinuan Behargintza-rekin lankidetzan aritzea, enpresek beren erakundeen barruan berdintasunezko praktikak txertatzera bideraturiko neurriak eta gizonen kontziliazio-neurriak har ditzaten sustatzeko.	Berdintasuna, Behargintza	Buruturiko kanpaina kopurua	2021

III. ARDATZA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERARIK GABEKO BIZITZAK

Istanbulgo Ituna izenarekin ezagutzen den Europa mailako arauak aitortzen du *‘emakumezkoen aurkako indarkeria emakume eta gizonen arteko desoreka historikoaren adierazpena dela. Horrek gizonetzkoek emakumeak menderatzea eta emakumearen bereizkeria ekarri du, horrela emakumeari bere emantzipazioa kenduz. Emakumeen aurkako egiturazko izaera generoan oinarritzen da. Era berean, emakumeen aurkako indarkeria mekanismo sozial erabakigarrietako bat da eta, ondorioz, emakumeak subordinazio-egoeran mantentzen dira gizonekin alderatuz’.*

Itunaren artikuluetan zehar, bereziki 7. artikuluan, proposatzen da *‘alderdiek beharrezko legegintza eta bestelako neurriak hartuko dituztela politika nazional eraginkorrek, orokorrek eta koordinatuak ezartzeko eta praktikan jartzeko, baita Itunaren aplikazio-esparruan dauden indarkeria mota guztiak prebenitzeko eta haiei aurre egiteko neurri egokiak ere, hala nola, etxeko indarkeria, sexu jazarpena, bortxaketa, behartutako ezkontza, ustez "ohorea"ren izenean egiten diren delituak eta genitalen ebaketak’.* Gainera azpimarratzen da indarkeria horiek *‘emakume eta neskatoen giza eskubideen urraketa larriak eta oinarritzko oztopo bat direla emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko’.*

7. artikuluekin jarraituz, 3. paragrafoak dioenez, *‘emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko harturiko neurriek eragina izan beharko dute eragile garrantzitsu guztiengan, hala nola, gobernu-agentziak, parlamentuak eta nazio-, eskualde- eta tokiko agintariak, giza eskubideen erakunde nazionalak eta gizarte zibileko erakundeak’.*

1.PROGRAMA. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA			
4/2005 Legea. VII. KAPITULUA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA			
1. atala. Ikerketa, prebentzioa eta prestakuntza			
1.helburua. Egiturazko indarkeria eta indarkeria kulturala murriztea.			
	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
1. Udalerrietako gizarte-eragileekin prozesuak sendotzea edo sortzea, jai giroan eraso sexistei aurre egiteko estrategiak garatzeko.	Berdintasuna, jaiak, kultura	Sortutako edo sustatutako prozesu kopurua; parte hartzen duten eragile sozialen	2019-2023

		kopurua, sexuaren arabera.	
2. Gazteen artean Beldur Barik ekimena sustatzea eta horri jarraipena ematea.	Berdintasuna	Parte-hartzaile kopurua, sexuaren arabera.	2019-2023

2.helburua. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea.			
	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
1. Udal edo Mankomunitate mailan dauden baliabide teknologikoak eta sare sozialak erabiltzea, berdintasun arlotik bultzaturiko tailerrak, hitzaldiak, ikastaroak eta kanpainak zabaltzeko.	Berdintasuna, informatika arloa	Hedapena egiteko erabilitako baliabide teknologiko eta sare sozialen kopurua.	2019-2023
2. Udal edo Mankomunitate mailan dauden baliabide teknologikoak eta sare sozialak erabiltzea Foru Aldundi, Eusko Jaurlaritzaren zein erakunde feministek eta LGTBIQ+-ek bultzaturiko ekimenak eta informazio guneak zabaltzeko.	Berdintasuna, informatika arloa	Hedapena egiteko erabilitako baliabide teknologiko eta sare sozialen kopurua.	2019-2023
3. Lilagune Jabekuntza Eskolako programazioan berdintasunaren inguruko zeharkako gaiekin eta indarkeria matxistarekiko diziplina anitzeko ikuspegiarekin zerikusia duten ikastaroak eskaintzea.	Berdintasuna	Berdintasunari eta indarkeria matxistari buruzko ikastaro kopurua.	2019-2023
4. Gaiarekin lotutako ezagutza eta esperientzia duten emakumeen elkarrekin koordinatzea, indarkeria matxistari buruz jendea kontzientziatzeko eta prestatzeko antolatzen dituzten ekintzak Plan honen esparruan barne kokatzeko.	Berdintasuna	Koordinaziorako ospaturiko bilera kopurua	2019-2023
5. Teoria feministari eta maskulinitatei buruzko ikastaroak eskaintzea gizonei.	Berdintasuna	Burururiko ikastaro kopurua	2023

6. Aniztasun sexuala eta genero identitatea lantzea eta ikustaraztea helburu duten ikastaroak, tailerrak edota ekintzak burutzea.	Berdintasuna	Buruturiko ikastaro kopurua	2020-2023
7. Orientazioa eta/edo informazioa behar duten LGTBIQ+ pertsonen zuzendutako informazio gune bat sortzearen bideragarritasuna aztertzea, pertsona horiek beren beharren arabera espezializatutako instantzia/zerbitzuetara bideratzeko.	Berdintasuna	Hedapena erabilitako teknologiko eta sare sozialen kopurua.	2020-2023

3.helburua. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzea eta sendotzea.			
	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
1. Indarkeria matxista antzemateko trebakuntza eskaintzea, jai herrikoiak antolatzeke lan egiten duten pertsonen, hala nola, Jai-Batzordea, Txosna Batzordea, eta abar.	Berdintasuna, kultura, jaiak	Gauzaturiko prestakuntza-saio kopurua. parte-hartzaile kopurua, sexuaren arabera.	2020-2023
2. Indarkeria sexistara antzemateko prestakuntza ematea emakumezkoen elkartei eta Andra Barriak Emakumeen Kontseiluari.	Berdintasuna	Gauzaturiko prestakuntza-saio kopurua. Parte hartzen duten emakume kopurua	2022
3. Gizonei zuzenduta, indarkeria matxista eta berdintasunaren	Berdintasuna	Gauzaturiko	2023

inguruko prestakuntza eskaintzea		prestakuntza-saio kopurua. Parte hartzen duten gizon kopurua	
4. Martxoaren 8ko (Emakumeen Eguna), Apirilaren 26ko (Lesbianen Ikusgaitasun Eguna), Maiatzaren 17ko (LGTBIQ + fobiaren aurkako Nazioarteko Eguna), eta Ekainaren 28ko (LGTBI + kolektiboen Nazioarteko Eguna) kanpainak egokitzea, hauen diseinuan indarkeria matxista zeharkakotasunez landuz.	Berdintasuna	Buruturiko kanpaina kopurua	2019-2023
5. Beldur Barik-en estrategia erabiliz, neska eta mutiko gazteentzako prestakuntza eskaintzea egungo gaiei buruz hausnartzeko eta hitz egiteko	Berdintasuna	Gauzaturiko prestakuntza-saio kopurua. parte-hartzaile kopurua, sexuaren arabera.	2019-2023
6. Geletan egiten den interbentzioaren edukietan indarkeria matxistaren prebentzioari garrantzi gehiago ematea.	Berdintasuna	Txertaturiko eduki kopurua.	2019-2023

2. PROGRAMA. DETEKZIOA, ATENTZIOA ETA KALTEA KONPONTZEA

4/2005 Legea. VII.KAPITULUA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

2. atala. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimetzako arreta eta babesa

1.helburua. Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarra areagotzea.

	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
1. Indarkeria sexistaren kasuen aurrean Jarduteko Erakundeen arteko II. Protokoloa sinatzea eta abian jartzea.	Berdintasuna, Lehendakaritza, Alkatetzak	II Protokoloa sinatzea eta abiaraztea.	2022

2. Protokoloan parte hartzen duten zerbitzu ezberdinetan eskainitako arreta guztien artean ebaluatzea.	Berdintasuna	Buruturiko ebaluazio kopurua	2023
3. Erakundeen arteko koordinaziorako protokolo eguneratua zabaltzea inplikaturiko zerbitzuen artean.	Berdintasuna	Hedapena egiteko bultzaturiko bilera kopurua	2019-2020
4. Protokoloaren ezarpena ebaluatzea eta aldatzea beharrezkoa izanez gero.	Berdintasuna	Buruturiko ebaluazio kopurua; txertaturiko aldaketa kopurua.	2022
5. Ahultasun-egoera handiagoan dauden kolektiboak eta arreta jasotzeko dituzten behar bereziak identifikatzea	Gizarte Zerbitzuak	Identifikaturiko kolektibo kopurua; detektaturiko beharrizan kopurua	2019-2023
6. Hizkuntzarekin erlazionaturiko eta informaziorako sarbidea nahiz arreta osoa jasotzea baldintzatzen duten beste motatako oztopoak desagerraraztea	Berdintasuna, Gizarte Zerbitzuak	Erabilitako baliabide kopurua	2020-2023

2.helburua. Emakumeen aurkako indarkeriatik bizirik atera diren biktimei arreta osoa bermatzea ahalduz ikuspuntutik eta esku-hartzea nazioarteko estandarrekin lerrokatuz.

	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
1. Ahalduz iraunkorra landuz, indarkeria sexistatik bizirik atera diren emakumeen talde baten sorrera sustatzea eta laguntzea.	Berdintasuna, Gizarte Zerbitzuak	Sortutako talde kopurua; Emakume parte-hartzaile kopurua	2020-2023

3.helburua. Kalte pertsonalak eta kolektiboak konpontzeko eskubidea bermatzea

	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
1. Aholkularitza juridikoaren barne, indarkeria sexistatik bizirik atera diren emakumeei aholkularitza eskaintzea.	Gizarte Zerbitzuak	Aholkularitza juridiko kopurua; Aholkularitza jaso duen emakume kopurua	2019-2023
2. Indarkeria sexistatik bizirik atera diren emakumeei eskaintako aholkularitza juridikoaren barne, kalte-ordainen eta konpontze-prozesuei buruzko informazioa helaraztea.	Gizarte Zerbitzuak	Aholkularitza juridiko kopurua; Aholkularitza jaso duen emakume kopurua	2019-2023

3. PROGRAMA. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

4/2005 Legea. VII.KAPITULUA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

2. atala. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimentzako arreta eta babesa

ETXEKO TRATU TXARRAK ETA SEXU INDARKERIA JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEI HARRERA HOBEA EGITEKO ERAKUNDEEN ARTEKO II. AKORDIOA

1.helburua. UKZM-an emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiten dioten erakunde desberdinen arteko esku-hartze koordinatua sustatzea.

	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
1. Udalerrietako emakumeek, elkarteek eta erakunde desberdinek indarkeria matxistaren aurrean prozesu parte hartzaileak abiarazi ditzaten sustatzea.	Berdintasuna	Abian jarritako prozesu kopurua; Elkarte edo erakunde kopurua; Emakume parte-hartzaile kopurua	2019-2023
2. A25, M8, A26, M17, E28 egunen harira salaketa eta aldarrikapen kontzentrazioetara joateko herritarrei	Berdintasuna	Koordinaziorako bilera kopurua	2019-2023

egindako deialdiak koordinatzea indarkeria matxistari dagokionean.			
3. Uribe Kostan indarkeria matxistari aurre egin dioten emakumeen oroimenerako gune bat identifikatzea.	Berdintasuna	Oroimenerako identifikaturiko gune kopurua.	2019-2023
4. Planean aurreikusitako ekintzen ebaluazio puntualak burutzea helburuen lorpen-maila ezagutzeko, eta beharrezkoa denean, ekintzak berriro diseinatzeke.	Berdintasuna, arlo guztiak	Buruturiko ebaluazio kopurua	2019-2023

2.helburua. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea.			
	Arlo arduradunak	Ebaluatzeko adierazleak	Gauzatzeko urtea
1. Informazioa biltzeko sistemak eta horien homogeneizazioa hobetzea, Mankomunitatean gertatzen diren indarkeria sexistako kasu ezberdinei buruzko datu eguneratuak eskaintzeko eta gai honetan esku-hartze publikoa hobetzarren erabil ahal izateko.	Gizarte Zerbitzuak eta Udaltzaingoak	Ezarritako bilketa-sistema kopurua; buruturiko hobekuntza kopurua	2019-2023
2. Indarkeriaren kontzeptualizazioari eta esku-hartzean duen inplikazioari buruzko hausnarketa sustatzea, indarkeriaren forma berrietan sakonduz teknikariei eta politikariei zuzendutako prestakuntzetan.	Berdintasuna	Buruturiko prestakuntza-saio kopurua	2020-2023
3. Indarkeria sexistatik bizirik atera diren biktimei arreta ematen lan egiten duten profesionalen prestakuntza iraunkorra, nahikoa eta arlo nahiz erantzukizun maila desberdinei egokitua izan dadin bermatzea.	Lehendakaritza	Buruturiko prestakuntza-saio kopurua	2019-2023

3.helburua. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzea eta sendotzea

1. Urteroko sensibilizazio-kanpainak antolatzea azaroaren 25ean, Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna ospatzeko.	Berdintasuna	Burururiko kopurua	kanpaina	2019-2023
2. Martxoaren 8ko eta ekainaren 28ko kanpainak Plan honetara egokitzea, indarkeria matxista zeharkakotasunez aintzat hartuz.	Berdintasuna	Burururiko kopurua;	kanpaina kanpainen edukien kopurua.	2019-2023
3. Mankomunitateko gizarte-eragileekin prozesu bat bultzatzea jai inguruneetan eraso matxistei aurre egiteko estrategiak garatzeko asmoz.	Berdintasuna	Bultzatutako kopurua;	prozesu Eragile sozial parte hartzaileen kopurua; elaboraturiko estrategia kopurua.	2019-2023
4. Arlo honetan ezagutza eta esperientzia duten emakumeen elkarteekin jarduerak antolatu eta koordinatzea, jendea indarkeria sexistari buruz kontzientziatzeko eta prestakuntza eskaintzeko.	Berdintasuna	Koordinazio kopurua;	Parte hartzen duten elkarte kopurua	2019-2023
5. Beldur Barik ekimena gazteen artean bultzatzea.	Berdintasuna	Sustaturiko kopurua	kanpaina	2019-2023
6. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko konpromisoa hartu eta haren defentsa sustatzen duten pertsonen kopurua handitzea, batez ere haurrak dituzten pertsonen artean edo euren erantzukizuna dela eta, adingabeentzako eredu direnen artean.	Berdintasuna	Konpromisoa hartu duten pertsona kopurua,	sexuaren arabera.	2019-2023
7. Komunikabideen bidez biktimizazio bikoitza saihesteko asmoz, sexuaren arabera pertsonak behe- edo goi-mailako nahiz sexu-objektu gisa aurkezten dituzten irudiak eta edukiak baztertzea, baita indarkeria, eta bereziki, emakumeen aurkako indarkeria	Berdintasuna eta arlo guztiak	Komunikabideetan azterturiko eta ezabaturiko irudi nahiz eduki kopurua		2019-2023

justifikatu, banalizatu edo bultzatzen dutenak ere.			
8. Indarkeria sexistaren tratamendu informatiboa hobetzea, genero desberdintasunak ikusgai egiteko, eta emakumeak beren borrokaren eragile aktibo gisa aurkezteko.	Berdintasuna	Buruturiko hobekuntza kopurua	2019-2023
9. Desberdintasunaren eta indarkeria sexistaren arteko harremana bistarazi edo prebentzioa bilatzen eta gatazken konponbide ez-bortitza sustatzen duten programetan eta jardueretan parte hartzen duten pertsona kopurua handitzea, bereziki mutil eta gizon kopurua.	Berdintasuna	Buruturiko programa kopurua; parte hartzen duten gizon kopurua	2019-2023
10. Emakumeen aurkako indarkeria mota desberdinei eta hauek desberdinkeriarekin duten harremanari buruzko pertzepzio soziala areagotzea, bereziki indarkeriaren modu sotilagoei eta agerikoak ez direnei dagokienez.	Berdintasuna	Jardueretan parte hartzen duten emakumeen eta gizonen artean antzematen den sentsibilizazio-maila	2022

8.- III. PLANAREN SEGIMENDURAKO ETA EBALUAZIORAKO SISTEMA

Berdintasunerako plan bat benetan eraginkorra da onartutako ekintzen implementazioaren jarraipena eta ebaluazio jarraitua egiten bada. UKZM-ko III. Planak lau urterako neurriak hartzen ditu barne. 2019ko maiatzerako espero den legistaturaren aldaketak kontuan hartuta eta korporazio berrien konstituzioei ekin arte, aurreikusi daiteke Plan hau 2019ko bigarren seihilekoan ezartzen hasiko dela. Gomendagarria da 12 hilabeteko epe jakin baterako onartutako ekintzak bakarrik jasoko dituzten urteroko plan operatiboak egitea. (ez luke urte naturalarekin bat egingo; dena den, arloko arduradunak erabakiko du urte naturalari mugatzen den edo ez).

Ekintza bakoitzak ebaluazio-adierazle batzuk biltzen ditu, plan operatiboen ebaluazioa urte amaieran egiteko baliagarri izango direnak. Horrela, berdintasun zerbitzuak erabaki zehatzagoak har ditzake, ekintza horien betetze-maila kontuan hartuta, eta horrek III. Planaren azken ebaluazioa asko erraztuko du iraunaldi-epea amaitzean.

Hala ere, ebaluazio zuzenak honako atal hauek izango lituzke:

- **Etengabeko ebaluazioa:** ekintzak garatu ahala, bakoitzaren ebaluazio-adierazleak eta arduradunak egindako ebaluazio kualitatiboa kontuan hartuta.
- **Ebaluazio partzialak:** Urteroko plan operatiboen urte amaierako ebaluazioak. Jarraipen egokia eta etengabeko ebaluazioa egiten bada, ebaluazio partzialak datu horiek bilduko ditu eta garatu ez diren ekintzak zerrendatu eta zergatiak azalduko ditu.
- **Azken ebaluazioa:** lau urteak igaro ondoren, azken ebaluazioak ebaluazio partzialak bilduko ditu eta txosten kuantitatiboa eta kualitatiboa egingo da.

SUSTAPENERAKO ETA SEGIMENDURAKO EGITURAK

Berdintasunerako III. Plana idatzi aurretik diagnostikoa egiteko sorturiko talde sustatzailea mantenduko da plan operatiboen betetzea eta aplikatzea sustatuko duen egitura bat egon dadin. Talde sustatzaile hori honako hauek osatuko dute:

- UKZMko Zinegotzi Ordezkarria
- Berdintasun Teknikaria
- UK-ko Emakume Kontseiluko Ordezkarria

Sustapenerako egituraren funtzioak hurrengoak izango dira:

- Urteko plan operatiboaren segimendua egitea, horretarako beharrezko informazioa ekarriz eta bilatuz.
- Erabakiak adostea eta hartzea.

- Planean jasotako ekintza desberdinen arlo arduradunen inplikazioaren segimendua egitea.
- Detektaturiko beharrak eta zailtasunak jasotzea eta partekatzea plan operatiboak aldatze edo hobetze aldera.
- Hobekuntzarako ideiak partekatzea.
- Planaren inplementazioan inplikaturiko agenteen hizketakide izatea.

Bestalde, izatez dauden bestelako egiturak mantenduko dira, eta haien funtzioen artean Berdintasunerako III. Planaren segimendua egongo da ere. Aipaturiko egitura horiek hauexek dira:

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Informazio-Batzordea. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko zazpi udalerrietako berdintasun arloko zinegotzi arduradunek, Berdintasun teknikariak eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako koordinatzaileak osaturikoa. Saio arruntean bilduko dira urtean behin. Batzordearen funtzioak honako hauek dira:

- Aurretiko irizpena igortzea Udalbatzan landuko diren OGZetako eta Berdintasun arloko zereginen gainean.
- Batzordeko Lehendakariak proposaturiko gaien inguruan informatzea eta eztabaidatzea.
- Gobernuaren zereginak eta arlo horien kudeaketa kontrolatzea Batzordeko Lehendakariari luzaturiko galderen eta interpelazioen bitartez.
- Mankomunitatean indarrean dagoen Berdintasunerako Planaren jarduera-ildoak eztabaidatzea.

Departamentu-arteko Batzorde Teknikoa. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko arlo tekniko bakoitzeko ordezkariak osaturikoa. Saio arruntean bilduko dira sei hilez behin. Batzorde Teknikoaren funtzioak honako hauek dira:

1. Urteko planean jasotako berdintasun politiken ekintzak inplementatzea arlo bakoitzaren jarduera esparruaren barne.
2. Urteko planetik gauzaturiko ekintzak ebaluatzea, hortaz, Departamentuarteko Batzorde Teknikoak urtero txosten bat igorri behar izango du buruturiko ekintzei buruzkoa.
3. Ideiak trukatzeko eta komunikatzeko gune bat sortzea berdintasun politiketako ekintzak lantzeko asmoz.
4. Mankomunitatea osatzen duten zazpi udalen artean elkarrizketarako organoa izatea, baita UKZM-k eskumenak dituen gai horietan ere. Horretaz gain, esperientziak eta proposamenak komunean jartzeko espazioa izango da Batzorde Teknikoa, udal desberdinen eta UKZMaren artean sinergiak sortzeko eta berdintasun politiken emaitzak eta kudeaketa hobetzeko asmoz.
5. Materia honetan proposamenak lantzea eta arauak ezartzea UKZMaren eta udaletxe desberdinen jardueren zein esku-hartzeen arteko koordinaziorako.

6. Mankomunitatea osatzen duten udalen aldetik emakume eta gizonen berdintasunerako planen nahiz UKZMan eta zazpi udaletan indarrean dauden beste araudi batzuen aplikazio eraginkorra bultzatzea eta koordinatzea eta hauek betetzen direla ziurtatzea. Era berean, kasu bakoitzeko, entitateekin eta organo arduradunekin elkarlanean arituko da Batzorde Teknikoa.
7. Agindutako beste edozein funtzio.

Andra Barriak UKZMko Emakume-Kontseilua. Mankomunitateko emakume elkarte guztietako ordezkariak osatuta, baita titulu indibidualean aritzen diren hainbat emakumek nahiz berdintasun teknikariak ere. Aipaturiko Kontseilu honen funtzioak honako hauek dira:

1. Emakume-elkarteei eta Mankomunitatearen emakumeei zuzenduta, eztabaidarako eta topaketarako foroa izatea, eta beren ekarpenak transmititu daitezen bultzatzea, orokorrean Mankomunitateko emakumeengan eta gizonengan eragin dezaten.
2. Bere ekimenez edo hala eskatzen zaionean, ikerketen elaborazioaren bitartez, txostenak igorri, edo beste baliabide batzuen bitartez, neurri zehatzak bultzatzea eta Administrazioarako iradokizunak egitea.
3. Emakumeen parte-hartzea bultzatzea erkidetutako nahiz tokiko zereginetan.
4. Kolaborazioa, lankidetzeta eta trukea bultzatzea emakume-elkarteen eta erakundeen artean, publiko edo pribatu, lokalak, probintziakoak, autonomikoak, estatukoak zein nazioartekoak izan, betiere emakumeen ahalduntzerako, emakume eta gizonen berdintasunaren sustapenerako nahiz parte-hartze demokratikoan oinarrituriko kulturaren garapenaren aldeko jarduerak garatzen badituzte.
5. Kontseilura behar bezala oinarrituta iristen diren jokaera diskriminatzaileen aurkako salaketa guztiak jasotzea eta organo eskudunei bideratzea, baldin eta jokaera hauek berdintasun-printzipioa hausten badute edo emakumeak iraintzen badituzte.
6. Emakumeen eskubideak babestea eta pertsonen artean berdintasun-balioak hedatzea, sexu-arrazoiagatik diskriminatu gabe.
7. Berdintasun arloan garaturiko edo garatu beharreko programen eta planen lanketan, onespenean eta segimenduan parte hartzea erkidetutako Berdintasun Zerbitzuarekin batera.
8. Aurrekontu orokorren politikaren onspena baino lehen zehaztutako lehentasunezko jarduera-lerro orokorren segimenduan entzuna izatea Mankomunitateko arlo guztietan garatu beharreko urteroko programen lantzea eta onspena baino lehen.
9. Berdintasun-politiketan eskumena duen erkidetutako zerbitzuak bere gastu-aurrekontuan Kontseiluak programatutako jarduerak finantzatzera zuzendutako urteroko hornidura aurrez ikusi behar izango du.
10. Mankomunitateko udalerrietako hiritarrak jardueren gainean informatzea, baita ere haiei zuzendutako sentsibilizazio-jarduerak egitea eta Kontseiluaren konpetentzia diren kontu haietan aholkua ematea.